

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala**

Bakioko Udaleko 2017ko udal aurrekontuaren zazpigarren aldarazpena behin betiko onestea, kreditu gehigarrien modalitatean. (Iragarkia 2017-12-03 Bakio).

Bakioko Udalbatzak, 2017ko urriaren 26an egindako osoko bilkuran, 2017 ekitaldiko udal aurrekontuari buruzko 7. aldarazpen espedientea hasiera batean onartu zuen: izan ere, aldarazpena kreditu gehigarriaren bidez egin da. Gauzak horrela, espedientea jendaurrean azaldu zan, udal ediktu oholean, udaleko web orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ipinitako iragarkien bidez, hamabost egun baliadun epean interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epealdi horretan erreklamaziorik aurkeztu ez den ezkerro, aldarazpena behin betiko onetsizat jo da.

Beraz aldarazpena kapituluka laburtuta era honetara argitaratzen da, betiere Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34.3. artikulua araberara.

GASTUAK

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun (€)	Aldarazpenak (€)	Behin betikoak (€)
920.933.00.05	Hornitzaileen maileguaren amortizazioa	243.332,81	1.172.825,86	1.416.158,67
	GUZTIRA	243.332,81	1.172.825,86	1.416.158,67

KREDITU GEHIGARRIEN FINANTZAKETA

Gastuen Partiden kontzeptuak	Baliabidearen kontzeptua	Finantzazio baliabideak (€)
870.01	Kreditu gehigarriak finantzatzeko ezarpena (2016ko ekitaldiko diruzaintzako gerakina)	1.172.825,86

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, betiere argitalpena egin eta hilabete biko epean iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

Bakion, 2017ko abenduaren 7an.—Alkatea, Amets Jauregizar Baraiazarra